

AURREKONTUA 2017

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa
- 2017rako aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko jarraibidea (2016ko azaroaren 15ean argitaratuak GAO)

AZTERTUTAKO TRAMITEA: AURREKONTUAREN ONARPENA 2017

1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1.1- ENTITATE ZERRENDA:

-AZKOITIKO UDALA
-SAN JOSE EGOITZA
-ZUBIAURRE-ELKARGUNE INSTITUTOA

1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu onarpenaren espedienteak 53.000,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2017rako ezarritako helburua defizit zero izatea da.

Hori dela eta, Aurrekontuaren onarpenaren espedienteak bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren 2017rako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2017ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 5.458.704,58€, 2016.ean aurreikusten den likidatutako sarrera arrunten (13.280.780,14€) % 41,10 izango dela aurreikusten da. Kalkulua egiteko, 2016eko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2017rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2017rako aurreikusitako amortizazioak. Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

2017rako ezarritako helburua magnitude hori %77 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2017ko Aurrekontuaren onarpenaren espedienteak bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2017rako helburua.

Gastuaren araua

2016ko eta 2017ko ekitaldien artean, gastu konputagarriaren bariazioa %7,36ko igoera da.

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

2016ko aurrekontu kontsolidatuko likid aurreik gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra):	14.051.891,05
- 2016ko interesak(likid aurreikusp.):	-80.670
2016ko gastu konputagarria:	13.971.221,05
2017ko hasierako aurrekontu kontsolidatuko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra):	15.121.540,40
- 2017ko interesak:	- 122.000,00
2017ko gastu konputagarria:	14.999.540,40
Gastu konputagarrien bariazioa	+% 7,36

2017rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa %2,2 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, Aurrekontuaren onarpenaren espedienteak ez du betetzen 2017rako gastuaren araua.

1.3.- ONDORIOAK

2017ko Aurrekontuaren onarpenaren espedienteak bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017rako ezarritako helburuak baina ez du betetzen gastu araua.

Hala ere 2017rako aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko jarraibideen hirugarren erregelak azken atalean dio gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko dela 2017 KOAURREKONTUA LIKIDATZEAN .

Ondorioz 2017ko Aurrekontuaren onarpenaren espedienteak bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017rako ezarritako helburuak.

2.- FORU ARAUAREN 1.2.b) ARTIKULUKO ENTITATEAK¹ (merkatura bideratutakoak)

2.1.- 1. ENTITATEA: AZKOITIA LANTZEN SA

2.2.- OREKA FINANTZARIOAREN HELBURUA BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

2017ko AURREKONTUA

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua, egonkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 2017rako aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko jarraibidea (2016ko azaroaren 15ean argitaratuak GAO)
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa

AZTERTUTAKO IZAPIDEA: AZKOITIA LANTZEN SA SOZIJETATEAREN 2017KO AURREKONTUAK ONARTZEA

Azkoitia Lantzenek proposatzen duen 2017rako aurrekontuak hipotesi hauek jasotzen ditu:

Azkoitia Lantzenen kontuen emaitzak, likidatutakoak eta aurreikusten direnak hauek dira:

EGOERA	EKITALDIA	KONTUEN EMAITZA
LIKIDATUA	2013	+15.556,82
LIKIDATUA	2014	-1.318.260,40
LIKIDATUA	2015	+764.678,97
AURREIKUSPENA	2016	-275.630,62
AURREIKUSPENA	2017	+33.431,60

1.2 AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

2017rako aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko jarraibideak, 1go erregelan Aurrekontu egonkortasunaren helburua arautzen du era honetara:

2. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2017ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da oreka finantzarioa izatea. Ondorio horretarako, oreka finantzariotzat ulertuko da galerarik ez izatea, entitate bakoitzari aplikagarria zaion kontabilitate planaren arabera.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da entitate guztietan, banan-banan hartuta, **bai 2017ko gastuen eta sarreraren aurreikuspen egoeran**, eta baita urteko kontuetan ere.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitateek apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez badute plan ekonomiko- finantzarioa egin beharko dute, jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Kontuhartzaitza honek uste du jarraibideen lehenengo erregela kontuan hartuz oreka finantzarioan onartzen duela Azkoitia Lantzenek 2017ko aurrekontua,

Azkoitia Lantzenek aurrekontuan proposatzen dituen Hipotesiak beteko balira 2017ko Azkoitia Lantzenen emaitza irabazia litzateke, zehazki 33.431,60 €koa.

Ondorioz Azkoitia Lantzenek ez du plan ekonomiko finantzarioa egin beharko, beti ere soilik egonkortasun azterketarako.

Azkoitia, 2016ko abenduaren 19a

Kontuhartzaileak